

KONTROL MOZIOA

AMETZAGAINAKO EKOARTZANTZA PROIEKTUA DELA ETA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko uztailaren 20an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2015eko maiatzean Ametzagaina parkeko bi eremu itxietan ekoartzantza proiektu pilotu bat martxan jarri zen. Erabaki hau hartu aurretik, teknikariek Europako hainbat hiritako ekoartzantza programak kontrastatu zituzten (Baionakoa, esate baterako) eta gai honetan adituak direnen iritzia kontuan hartu zuten. Proiektu honek urtebeteko kontratua adostua zuen, baina maiatzaren haueskundeen ostean, EAJ eta PSEren Udal Gobernu berriak hitzarmena bertan behera uzteko agindua eman zuen.

Kontratu apurketa hau ez zitzaion aurrez aurre jakinarazi Julien Le Blanc ekoartzainari eta Udal Gobernuako kide batek prentsan egindako adierazpenen bidez izan zuen hark aginduaren berri. Adierazpen horiek proiektuaren inguruko hausnarketa prozesurik gabe egin ziren, datu okerrak erabilita eta herritarrei mezu kontrajarriak emanez.

EH Bilduk uztailaren 13an Julien Le Blanc-ekin izandako bileran, oraindik ez zitzaiola kontratuaren apurketaren berri idatziz jakinarazi adierazi zuen.

Udal Gobernuak, bestalde, ez du planteatu zer egin behar ote den parkean dauden ardiekin, non birkoka daitezkeen edo Ametzagainako itxitako guneko mantenua nola egingo den ere.

Aste honetan jakin dugu, Julien Le Blanc-en eskutik, Gune Publikoetako, Ingurumeneko eta Festetako zinegotzi Alfonso Gurpegui jauna berarekin elkartu dela eta idatziz jakinarazi dizkiola Ametzagaina parketik ardiak eramateko agindua eta kontratu apurketa, 300 euro inguruko kalte ordainarekin.

Gurpegui jaunak, uztailaren 20ean izandako Gune Publikoen Batzordean, honako hau jakinarazi zuen: “Udal Gobernuak ez dago ekoartzantzen aurka, baina Ametzagainako parkea ez da lekurik aiposena, txakurrak aske paseatzeko dagoen espazio bakarra delako hiri mailan”. Honi erantzunez, Lantxabe auzo elkarteak publikoki adierazi du Miramongo Basoa leku aiposatu izango litzatekeela ekoartzantza proiektua martxan jartzeko eta hainbat aditu Udal Gobernuarekin harremanetan jarri dira proiektu honen alderdi positiboak jakinarazteko. Orain arte, ordea, ez da pausorik eman bide honetan eta ez dira adituen gomendioak kontuan hartu.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Gai honi lotuta dagoen expedientearen gardentasuna ere zalantzan jartzen dugu. Izan ere, EH Bildu taldeak hiru aldiz eskatu du sinatutako lan-hitzarmen eta kontratu etetea idatziz, baina gaur egunerarte ez dugu expedientea ikusteko aukerarik izan.

Horiek horrela, hauxe da gure **MOZIOA**:

- Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egin ditzala egin beharreko gestioak ekoartzantza proiektua berreskuratzeko, eta ardiak, Ametzagainan arazo badira, hiriko beste zonalde batean kokatzeko.
- Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Gobernuari Udalarekin lotura kontraktuala duten langileekiko harremanetan, tratu pertsonal egokia bermatzea, baita edozein arrazoi dela medio lan hitzarmena edo kontratua eten behar denean ere.
- Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari udal expedienteekin erlazionatutako txostenak eta dokumentazioa gardentasunez erabiltzea.

Donostian, 2015eko uztailaren 24ean

Olaia Duarte Lopez
EH BILDU udal taldeko zinegotzia

